

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3877

AGINDUA, 2026ko abuztuaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2026-2027 ikasturtean Lanbide Heziketako ikastetxe pribatu itunduetako ikasleen artean ekintzailtzaren kultura sustatzeko laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari esleitzen dizkio, beste funtzio batzuen artean, hauek:

- Lanbide-heziketako ikasleen artean espiritu ekintzailea eta enpresa-kultura sustatzeko beharrezkoak diren ekintzak ezartzea, ekintzailtza pertsonala sustatuz eta ikasleei enpresa-proiektu berriak hasteko gaitasuna emanez.

- Lanbide-heziketako zentroei laguntzea enpresa-proiektuak garatzen eta enpresak sortzen, barnean hartuko dituztenak digitalizazioa, jasangarritasuna, berrikuntza, konpromiso soziala eta pertsonetan oinarritutako antolaketa-egiturak, euskal produkzio-sarea berroneratzen, modernizatzen eta zabaltzen joateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak Lanbide Heziketako euskal sistemaren lehentasunezko helburu hau ezartzen du 3. artikulua 2.c) apartatuan: berrikuntza, sormena, ekintzailtza-gaitasuna eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera sustatzea, bai hasierako lanbide heziketan, bai enplegurako lanbide heziketan.

Era berean, aipatutako 4/2018 Legearen 8. artikulua ekintzailtzako ikaskuntzaren eremuari buruzkoa da. Artikulu horren 2. apartatuan ezartzen denez, ekintzailtzaren ikaskuntza-proiektuetan saiatuko da konpetentzia berriak garatzen ikasleen artean, sormenezkoak zein kontzeptuzkoak, ekintzailtzaren kultura sustatzera orientatuak eta jarduera erreal batean oinarritutako esperientzia praktikoen arabera antolatuak.

Ildo berean, 4/2018 Legearen 9. artikulua 2. apartatuak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide heziketaren arloan eskumena duen sailak berariaz bultzatuko du berrikuntzaren eta ekintzailtzaren eremuko ikaskuntza- eta sustatze-ekintzak sartzeko, arlo horiek garatzeko beharrezkoa den prestakuntza ematea, eta bi eremu horiei lotutako proiektuak martxan jartzea.

Bestalde, Euskadiko Lanbide Heziketako 2030 Estrategiak ekintzailtzaren kultura bultzatzen du zenbait helbururen bitartez. Aipatu beharrezkoa da «Euskadi Aurreratua. Berrikuntza eta ekintzailtza» estrategiaren 2. ardatzaren 11. helburu estrategikoa: Lanbide Heziketan kultura ekintzailea bultzatzea eta enpresa berriak sortzea, bai egungo sektoreetan, bai sektore estrategiko emergenteetan.

Ildo beretik, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak adierazten du berrikuntzaren kultura, aplikatutako ikerkuntza eta ekintzailtza aktiboa Lanbide Heziketako Sistemaren eskaintzen oinarritzko curriculumen parte izan behar direla Eskaintza horretan jaso beharko da ekintzailtzarako orientazioa eta laguntza, ekintzailtzaren kultura eta ekimen-sena sustatzeko jarduerak, eta ekoizpen sektorearekin lotutako enpresa-proiektu berriei ekiteko gaitasuna, enpresak sortzea lagundu nahi denez gero.

Testuinguru horretan, hainbat ekimen garatu dira ekintzailetzaren kultura sustatzeko. Funtsezko jardueretako bat ikasleek enpresa-arloko simulazio-proiektuak egitea da. Ikasketa-tresna horren bitartez, ikasleek zenbait konpetentzia garatzeko aukera dute, eta, modu horretan, profesional onak, enplegarriak, pertsona aktibo eta ekintzaileak izango dira, eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari egin ahal izango diote aurre. Era berean, sentsibilizazioa piztu dakieke, autoenplegua ere aukeretako bat izan dadin.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2026. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago, zeina Hezkuntzako sailburuaren 2026ko otsailaren 24ko aginduaren bidez onartu zen eta Hezkuntza Sailaren <https://www.euskadi.eus> webgunean argitaratuta dagoen.

Horregatik, kontuan hartuta, batetik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretua, Dirulaguntzen Araubidea Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak erregulatzeari buruz ezarritakoarekin bat etorriz, eta kontuan hartuta, bestetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege horren gaineko erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenetan ezarritakoa,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egitea, 2026-2027 ikasturtean kultura ekintzailea sustatuko duten enpresa arloko simulazio-proiektuak gara ditzaten, eta agindu honen eranskinean ageri diren oinarri arautzaileak onartzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek jasotzen ez dituen alderdiak arautzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta laguntza eta dirulaguntza publikoei buruzko araudia aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari, bi hilabeteko epean. Bi epeok agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1. oinarria.– Deialdiaren xedea.

– Itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egitea, 2026-2027 ikasturtean kultura ekintzailea sustatuko duten enpresa arloko simulazio-proiektuak gara ditzaten, Oinarrizko Lanbide Heziketako, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bateko azkenengo mailan dauden ikasleen artean.

2. oinarria.– Kreditu erabilgarria.

251.800 euro bideratuko dira helburu horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan horretarako finkatutako aurrekontu-kredituaren arabera.

3. oinarria.– Onuradun izateko betekizunak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimen ofiziala duten EAEko itunpeko ikastetxe pribatu guztiak.

2.– Ikastetxe eskatzaileek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horien artean, honako hauek daude:

– Egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari dagokionez, eta dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrei dagokienez. Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, betekizun hori betetzen dela, eta, horretarako, ez du ikastetxe eskatzaileen baimenik beharko, Dirulaguntzen araubidea erregulatzen abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua aplikatuz.

– Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea galarazten dion zehapen penal edo administratiborik.

– Ez izatea zehapen administratiborik edo penalik inor sexu-arrazoiengatik diskriminatzeagatik edo ez betetzeagatik emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko araudia (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea).

– Derrigorrezkoa izatekotan, berdintasun-plana indarrean izan beharko dute eta/edo sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatu beharko dute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen legedian ezarritako terminoetan.

– Diruz lagunduko den jarduerak ezin izango du sexuan oinarritutako bereizkeriarik izan.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako eskakizunez gain, entitateak honako hau egiaztatuko du eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

- Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den inolako itzulketa- edo zehapen-prozeduratan.

- Ordainduta dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

- Ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 13. artikuluan xedatutako ezein inguruabarren eraginpean.

- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.

- Betetzen dituela indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak, eta badituela hori egiaztatzen duten agiriak. Entitateak administrazioaren esku jarriko ditu aipatutako agiriak, hala eskatzen zaionean.

- Betebehar horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen bitartean.

- Ebazpenean jasotako inguruabarretan aldaketarik izanez gero, konpromisoa hartzen duela aldaketak jakinarazteko.

4.– Ezinbestekoa da baldintza horiek betetzea dirulaguntza ematen denetik dirulaguntza ordaintzen den arte.

Entitate onuradunak oinarri honetan deklaraturakoa betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa izango du, eta Administrazioaren esku jarriko du Administrazioak egiaztatzeko eskatzen dionean.

4. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

Ikasleek egindako simulazio-azpiproiektu guztiek ikastetxearen enpresa-simulazioko proiektu bakarra osatuko dute. Azpiproiektu horiek ikastetxean gauzatu behar dira beti, eta ikasleek ikastetxeko irakasleen laguntza eta aholkularitza jasoko dute.

1.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

1.a.– Ikastetxearen enpresa-simulazioko proiektua, baldin eta gutxienez 17 puntu eskuratu baditu.

1.b.– Ikastetxekoak ez diren kanpo-profesionalen curriculumaren kanpoko trebakuntza-jarduerak, beharrezkoak direnak azpiproiektuak gauzatzeko edo ikasleen ekintzailatza-gaitasuna handitzeko. Prestakuntza-jardueretan, genero-ikuspegia aintzat hartu beharko da, eta ezingo da sortu genero-rolak eta -estereotiporik.

1.c.– Kultura ekintzailea zabaltzen laguntzen duten eta deialdi honen babesean garatutako azpiproiektuak zabaltzeko helburua duten zabalkunde-jarduerak.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

2.a.– Azpiproiektuak zorrotz eta behar bezala gauzatzen laguntzen duten gastuak.

2.b.– Material ez-suntsikorra erosteko (makinak, erremintak...) ikastetxea bere osotasunean aztertuko da: azpiproiektu batek baino gehiagok behar badute elementu bera, bakarra eskatuko da.

Aurreko hiru urtetako eskaeren bidez antzeko dirulaguntzak eman badira, ezingo da elementu hori eskatu.

2.c.– Material suntsikorrak, baldin eta bat badatoz argi eta garbi produktuaren prototipo baten garapenarekin edo zerbitzuaren diseinu baten garapenarekin.

2.d.– Lizenziak ezinbestekoak diren denboran lagunduko dira diruz, baldin eta azpiproiekturako egokiak direla justifikatzen bada.

2.e.– Curriculumekoak ez diren prestakuntza-jarduerak kontratatzea, bai eta, zabalkunde-ekitaldiei dagozkienak ere, hauek barne: azpiegiturak alokatzea (espazioak, standak...), ekitaldiaren zabalkunderako eta komunikaziorako kanpaina, liburuxkak edo diptikoak.

Gastuak ikasturtea hasi eta 2026ko abenduaren 23a bitartean egin beharko dira.

3.– Diruz lagundu ezin diren gastuak:

3.a.– Ezingo dira diruz lagundu zuzenean azpiproiektuekin lotuta ez dauden gastuak eta dagozkien eranskinetan behar bezala justifikatzen ez direnak.

3.b.– Ez da material suntsikorrik diruz lagunduko, baldin eta kontsideratzen bada gaindimentsionatuta dagoela gauzatu beharreko prototipoarekiko.

3.c.– Ez da onartuko zikloaren berezko materialak, baldin eta ez bada zuzenean erabiltzen prototipoa eraikitzeko.

3.d.– Ez da onartuko ikastetxearen publizitatea egiteko erabiltzen den inolako materialik.

3.e.– Lizenzien erosketak azpiproiektuaren iraunaldiaz soilik lagunduko da diruz, ez luzaroago, ezta enpresa-simulaziorako softwareena ere.

3.f.– Ez da diruz lagunduko material ez-suntsikorra, ikastetxerako inbertsio kontsideratzen bada, adibidez, zikloaren oinarritzko curriculum-diseinuan zehazten den gutxieneko ekipamendua, edo aurreko deialdietan diruz lagundu den materiala.

3.g.– Ez da diruz lagunduko hasierako eskabidean aipatu ez den materialik edo softwarerik, baldin eta ez bada behar bezala justifikatutako aldaketa eskatzen. Horretarako, dagokion prestakuntza-eskaera aurkeztuko da, aldaketa aztertu eta onartu dadin.

Aldaketa horren eskaera dagokion azpiproiektuaren «Beste dokumentu batzuk» apartatuan aurkeztuko da.

3.h.– Prestakuntza-jarduerei dagokienez, ez dira diruz lagunduko curriculumeko jardueratzat jotzen badira.

Edonola ere, gastu horiek Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.

5. oinarria.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Gehienez ere 15.000 euro emango dira ikastetxeko. Ikastetxeak eskatutako aurrekontua aurreko zenbatekoa baino handiagoa bada, ikastetxeak izango du zuzkidura ikastetxeko azpiproiektuen artean banatzeko ardura.

2.– Baldin eta 2. artikuluan adierazitako zuzkidura nahikoa ez bada onartutako eskaera guztiei erantzuteko, zuzkidura hori hainbanatu egingo da, alegia, proportzionalki banatuko da onartutako

eskaera guztien artean. Kasu horretan, ikastetxeak izango luke zuzkidura ikastetxeko azpiproiektuen artean banatzeko ardura.

3.– Zenbateko hauek bideratu ahal izango dira:

– Gehienez ere, emandako laguntzaren zenbatekoaren % 40 bideratu ahal izango da 4. oinarriaren 1.c. apartatuan jasotako prestakuntza-jardueretarako.

– Gehienez ere, emandako laguntzaren zenbatekoaren % 10 eman ahal izango da 4. oinarriaren 1.d. apartatuan jasotako zabalkunde-jardueretarako.

Beraz, emandako laguntzaren % 50, gutxienez, ikasleek enpresa-arloko simulazio-azpiproiektuak egitera bideratu beharko da.

4.– Prestakuntza-jardueren kasuan, gehienez ere 100 euro finantzatu ahal izango da emandako prestakuntza-ordu bakoitzeko.

6. oinarria.– Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin.

Agindu honetan araututako laguntzak bateraezinak dira xede bera duten erakunde publikoen edo pribatuen dirulaguntzekin edo laguntzekin.

II. KAPITULUA

ESKABIDEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

7. oinarria.– Izapidetze elektronikoa

1.– Ikastetxeek baliabide elektronikoak erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta izapide guztiak.

Izapidetze elektronikoa ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan dago araututa (Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

2.– Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak administrazio-prozeduraren informazio-fitxan jasota daude, eta horren bidez sar daiteke eskaera egiteko inprimakira. Helbide honetan dago:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1068009>

3.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, modu elektronikoan:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak>

5.– Elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Ordezkaritza Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/ahaler/web01-tramite/eu/>

8. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak modu elektronikoan aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1068009>

3.– Ikastetxeko legezko ordezkariari dagokio eskabidea egitea, Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariari zuzenduta.

4.– Eskabideak eta haiei erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, ikastetxeak aukeratutakoaren arabera. Era berean, eskabidea egin duen ikastetxeak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran zehar.

9. oinarria.– Aurkeztu beharreko agiriak.

Ikastetxe bakoitzak eskabide bakarra egingo du, eta behar bezala beteta aurkeztuko ditu eranskin hauek:

– I. eranskina. Eskaera-formularioa. Ez dira sartu behar kostu ekonomikorik eragiten ez duten azpiproiektuak edo ikastetxearen baliabideekin gauzatu ahal direnak.

– II. eranskina. Ikastetxearen enpresa arloko simulazio-proiektuaren fitxa.

– III. eranskina. Prestakuntza- eta zabalkunde-jardueren fitxa.

Aurreko deialdietako eranskinak edota eskaneatutako eranskinak baztertu egingo dira.

10. oinarria.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezala edo beharrezko dokumentuak aurkez ditzala. Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea hamar egunekoa izango da. Hala egingo ez balu, eskabidean atzera egin duela ulertuko da (hau da, aurkeztutako eskabidea ondoriorik gabe geratzen da), ebazpena eman ondoren. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatuaren arabera.

11. oinarria.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak kudeatzea, eta Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria da atal horren arduraduna.

12. oinarria.– Hautaketa-irizpideak eta puntuazioa.

1.– Hautaketa- eta puntuazio-irizpideak honako hauek izango dira:

1.1.– Landutako ekintzailatza-gaitasunak (gehienez 5 puntu):

– Ekintzailearen ezaugarriak ezagutzea eta horiek ekintzailatzako gaitasun eta jarrera zehatzetan nola adierazten diren jakitea. (puntu 1).

– Ekintzailatzaren arloko trebetasunekin bat datozen jarrerak eta portaerak garatzea: berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna, talde-lana eta lan-espirtua. (puntu 1).

– Konturatzea nolako garrantzia duen ekintzailatzaren gaitasunak, erronkei aurre egiteko eta helburuak lortzeko orduan. (puntu 1).

– Modu kritikoan pentsatzen ikastea eta ikasleak prestatzea, ideiak garatzean arriskuak har ditzaten. (puntu 1).

– Ikasleak egiten ari diren zikloarekin eta euren inguruarekin erlazionatutako enpresa-sarea ezagutzea, etorkizunean ekintzailatzarako aukera izan dezaten. (puntu 1).

1.2.– Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuan landutako eremuak (gehienez 13 puntu):

– Horretan ari diren edo esparru horretan aurretiazko esperientzia duten ikasleen heziketa-zikloarekin erlazionatuta dago. (puntu 1).

– Lotuta dago teknologia aurreratuen erabilerarekin, hala nola: digitalizazioa (errealitate birtuala, errealitate areagotua, adimen artifiziala, etab.), konektagarritasuna, robotizazioa eta automatizazioa, zibersegurtasuna, datuen azterketa. (2 puntu).

– Jasangarritasuna jorratzen du: energia-efizientzia, ekonomia jasangarria, ekonomia zirkularra, 4.0 osasuna, Biozientzia eta Bioteknologiak, etab. (2 puntu).

– Proiektua industria-sektoreko enpresa bat sortzera bideratuta dago, eta/edo zerbitzu aurreratuen arlokoa da. (2 puntu).

– Lotuta dago Garapen Jasangarriko Helburuen garapenarekin, eta/edo gizarte-ekonomiaren balioak jorratzen ditu. (2 puntu).

Dibertsitatea eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzen laguntzen du, edo pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko osagai soziala dauka. (2 puntu).

– Ez du genero-rolik eta -estereotiporik erreproduzitzen, eta/edo emakumezkoen ekintzailatza sustatzen du: (2 puntu).

1.3.– Euskararen erabilera sustatzen du proiektuaren garapen prozesuan (2 puntu).

1.4.– Ekintzailatza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzea (gehienez 4 puntu).

– Azpiproiektuen % 30 baino gutxiagok ekintzailatza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzen dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 2 puntu.

– Azpiproiektuen % 30etik % 60ra ekintzailatza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzen dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 3 puntu.

– Azpiproiektuen % 60 baino gehiagok ekintzailatza kolektiboa sustatzen duen forma juridikoa aukeratzen dute (kooperatiba-sozietatea, lan-sozietatea edo beste bat): 4 puntu.

1.5.– Ikastetxearen enpresa-arloko simulazio-proiektuaren eragina (gehienez 5 puntu):

Enpresa-arloko simulazio-proiektuak inplikatzeko dituen ikastetxearen heziketa-zikloen kopurua:

– Zikloen % 100-76 inplikatzeko badu: 5 puntu.

– Zikloen % 75-51 inplikatzeko badu: 3 puntu.

– Zikloen % 50-25 inplikatzeko badu: puntu 1.

2.– Gutxienez 17 puntu lortzen duten enpresa-arloko simulazio-proiektuek bakarrik jaso dezakete laguntza. Gehieneko puntuazioa 29 da.

13. oinarria.— Balorazio-batzordea:

1.— Balorazio-batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Batzorde hori kide anitzeko organo gisa jardungo da, eta pertsona hauek osatuko dute:

- Ergiña Urzelai, Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuko (iTlent) teknikaria.
- José Ramón Gomez Laconcha, Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuko (iTlent) zuzendari exekutiboa.
- Miriam Lasagabaster Herrarte, Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendari-tzako teknikaria.

2.— Aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, ebaluazio-batzordeak txosten bat egin beharko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

3.— Balorazio-batzordeko kideak ezin izango dira interes-gatazkako egoera batean egon balorazioa egitean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.5 artikuluan ezarritakoa betez. Artikulu horren arabera, dirulaguntzen prozeduretan beharrezko neurriak hartu behar dira, eskabideen balorazioan edo prozedura horien ebazpenean parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

4.— Entitate eskatzaileek ebaluazio-batzordeko kideak errekusatu ahal izango dituzte, edo batzordekideak abstenitu daitezela eskatu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluek xedatu dutenaren arabera.

14. oinarria.— Ebazteko, jakinarazteko eta publikotasuna emateko prozedura.

1.— Lanbide Heziketako sailburuordeak ebatziko du deialdiko dirulaguntzak ematea, balorazio-batzordeak eginiko txostenean jasotakoaren arabera (13.2 oinarria).

2.— Ebazpenean jasoko da emandako dirulaguntzen zerrenda, eta baztertu eta prozeduratik kanpo geratu direnena. Emandako dirulaguntzen kasuan enpresa-simulazio proiektuaren izena, ikastetxe onuradunaren izena eta emandako kopurua adieraziko da. Baztertutakoen kasuan, zergatia adieraziko da.

3.— Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa>), eta hor argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak.

<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa>

4.— Horrez gain, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpenen abisuak bidali ahal izango dizkie SMS edo posta elektronikoko mezuen bidez, eskaera-inprimakian jasotako telefono mugikorretara edo posta elektronikoko kontuetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

5.— Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari. Errekurtsoa aurkezteko epea hilabetekoa da, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

6.— Ebazpena argitaratzeko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea amaitu eta ikastetxe interesdunari ebazpenik jakinarazi ezean, ulertuko da ezetsi egin dela.

15. oinarria.— Dirulaguntzak ordaintzea.

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehena, emandako laguntza osoaren % 40, aurrerakin gisa ordainduko da laguntza onartu ondoren; bigarrena, gainerako % 60ari dagokiona, dirulaguntza justifikatu ondoren.

16. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.— Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta ezer aldatzen bada dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, betiere xedea betetzat jotzen bada.

2.— Ondorio horietarako, Lanbide Heziketako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako dirulaguntzaren kopurua doitu da, edo, hala egokituz gero, jasotako gehiegizko diru kopurua itzultzeko aginduko da.

17. artikulua.— Ez-betetzeak eta itzulketa-prozedura.

1.— Dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala egokituz gero, jasotako zenbatekoa eta dagokion berandutze-interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, hauetako bat gertatuz gero:

a) Ikastetxe onuradunak aurkeztutako azken memoriatik (V. eranskina) ondorioztatzea jarduerak ez dituela lortu diruz lagundutako enpresa-simulazio proiektuan proposatutako gutxieneko helburuak.

b) Ez betetzea agindu honetan eta hura garatzen duten ebazpenetan xedatutako edozein betebeharrak edo baldintza.

c) Ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen konturako dirulaguntzen onuradunen edozein betebeharrak. Betebeharrak horiek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan jasota daude, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

d) Entitate publiko edo pribatuaren beste edozein dirulaguntza jaso izana helburu bererako.

2.— Jasotako zenbatekoaren itzulketa eta berandutze-interesaren eskaera Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. eta 40. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 42. artikuluekin bat etorritik.

III. KAPITULUA

ONURADUNEN BETEBEHARRAK, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA ORDAINKETA

18. oinarria.— Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako deialdiko laguntzen onuradun diren ikastetxeek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.— Eman zaien dirulaguntza onartuko dute. Alde horretatik, esleipen-ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar egun naturaleko epean ikastetxe onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, hura onartu dutela ulertuko da.

2.— Diruz lagundutako jarduerak ikastetxearen urteko planean sartzea.

3.– Emandako dirulaguntza justifikatzea 19. oinarrian jasotakoaren arabera.

4.– Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako erabiltzea. Inolaz ere ez dira onartuko aurretik onartu ez diren desbideratzeen gastuak.

5.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik agindu honetako helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

6.– Laguntza ematean kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri ematea Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

7.– Jasotako dirulaguntzen zabalkunderako neurriak hartzea. Edonola ere, zabalkunderako neurri dagokienez, erabiltzen diren euskarrietan –informatikoetan zein bestelakoetan– adierazpen hau sartuko da: «Eusko Jaurlaritzak finantzatutako jarduera».

8.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

9.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak guztiak betetzea; zehazki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea haiek beren funtzioak betetzeko eskatzen duten edozein informazio, laguntzen xedea fiskalizatu ahal izan dezaten.

10.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, ikastetxe onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta eman edo hirugarren interesdunen datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak hirugarrenentzat emandako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak-jarraibideak>

Izapide hori egin behar da ordainketa egin ahal izateko.

Ofizioz aztertuko da erakunde eskatzailea alta emanda dagoen erregistroan.

Hirugarrenaren alta elektronikoki izapidetu daiteke egoitza elektronikoa erabilgarri dagoen zerbitzuaren bidez:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenen-erregistro-telematika/web01-s2oga/eu/>

19. oinarria.– Laguntzak justifikatzea.

Ikastetxe onuradunek 2027ko urtarrilaren 8ra arte (egun hori barne) egindako gastuen justifikazioa aurkeztu ahal izango dute, honako hauen bidez:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Txosten ekonomikoa eta egindako gastuaren laburpena (IV. eranskina), eskatutako eta aurretiaz onartu zaien aldaketa oro justifikatuta. Emandako dirulaguntzari edo diru-hornidurari esleia dakizkioken fakturak eta lege onartutako beste edozein egiaztagiria erantsi behar dira. Fakturak eta egiaztagiri horiek jaulkipen-data adierazi behar dute, eta, hala badagokio, datu hauek: ordainketa-data, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, kontzeptua (fakturatzen ari diren produktu edo zerbitzu guztien zerrenda xehatua) eta zenbatekoa. Bestela, gastu horiek ez dira onartuko.

Faktura eta ordainagiri horiek ikasturtearen hasiera baino geroagoko data izango dute, eta 2026ko abenduaren 23a baino lehenagokoa.

Dirulaguntza ematen duen organoak zorizko laginketa sinplearen bidez hautatutako egiaztagiriak egiaztatu ahal izango du, dirulaguntza modu egokian erabili dela ondorioztatzeko adinako ebidentzia bildu arte. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari. Halaber, salbuespen gisa, jatorrizko dokumentua aurkezteko eskatu ahal izango dio, edo aurkeztutako kopiak erkatzeko; horretarako, jatorrizko dokumentua erakutsi beharko da.

b) Amaierako ebaluazio-memoria. Bilakaera eta emaitzak adieraziko ditu, aurreikusitako helburruekin alderatuta (V. eranskina).

20. oinarria.— Jarraipena.

1.— Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak diruz lagundutako jardueren jarraipena egingo du (II. eta V. eranskinak) LHko Talentuaren Euskal Institutuaren (iTlent) bidez, jarduketa horiek egiten direla bermatzeko.

2.— Diruz lagundutako ikastetxe-proiektuaren garapenean gorabeheraren bat gertatuz gero, LHko Talentuaren Euskal Institutuko (iTlent) langileek egokitzen jo ahal izango dute txosten bat egitea eta Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari bidaltzea. Txostenaren edukiaren arabera, zuzendaritza honek agindu hau betetzeko neurri egokiak hartu ahal izango ditu.

21. oinarria.— Ebaluazioa.

Enpresa-simulazioaren proiektuaren amaierako memoriak (V. eranskina) honako hauek jasoko ditu:

- erdietsitako lorpenak.
- ikastetxeko simulazio-azpiproiektuen garapena.
- ikasleen parte-hartzea.
- egindako prestakuntza-jarduerak.
- egindako zabalkunde-jarduerak.
- enpresa-simulazio proiektuak ikastetxean izandako inpaktuari buruzko balorazioa eta ondorioak.
- beharrezkoa bada, izandako gorabeherak eta egindako aldaketak.

22. oinarria.— Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Laguntza eta dirulaguntzak, Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat.

Arduraduna: Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: Laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da aplikagarriak diren lege-betebeharrak betetzeko.

Beharrezko tratamendua interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko.

Hartzaileak:

Europar Batasuneko organoak.

Estatuko Administraziooko beste organo batzuk.

Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Europako Batzordea.

Eskubideak:

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).

Informazio gehigarria:

Gure web-orrian kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehiago, zehatzagoa:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/039900-cap2-eu.shtml

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa:

www.boe.es/buscar/doc.php?ID=BOE-A-2018-16673